

## Emakundek MONDRAGON UNIBERTSITATEko Enpresagintza Fakultatea 73 enpresen artean emakume eta gizonen arteko berdintasunerako erakunde laguntzaile gisa aitortu du.

2016/03/04

Ziurtagiri honekin, 2008an hasitako ibilbidea saritu dietela uste dute Berdintasun Taldeko kideak.

Emakundek 73 enpresa eta entitate aitortu ditu emakume eta gizonen berdintasunerako erakunde laguntzaile gisa. Emakundeko zuzendariak, Izaskun Landaidak, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakunde izendatzen duen bereizgarriaren entrega egin die 73 enpresa eta entitate ezberdinei. Erakunde horietatik unibertsitateko mailako bakarra izan da MONDRAGON UNIBERTSITATEko Enpresagintza Fakultatea.

Honen helburua da euren erakundeetan emakume eta gizonen berdintasunarekin konpromisoa hartzen duten entitateen lana aitortzea. Ziurtagiria lortzeko kontuan hartu dira lan-baldintzetan emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasuna bermatzeko jarduerak, eta enpleguarena kalitateari dagozkionak; eta baita kanpora begira egindako jarduerak ere.

Informazioa eta argazkiak hemen:

<http://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/31050-emakunde-reconoce-empresas-entidades-como-colaboradoras-para-igualdad-mujeres-hombres>

